

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Luis Aiarza Zubillaga

*Donostia,
Gipuzkoa
(1935-2014)*

Aurkibidea



Biografia



Egiako Etxetxo baserrian jaio zen, Polloeko hilerriaren ondoan. Ama bertakoa zen, eta aita Parte Zaharrekoa. Bi senide ziren. Jose Luisek lau urte zituenean Aldamar kalera joan ziren bizitzera. Hantxe egin zituen ikasketak, lehenengo Ensantxeko eskola publikoan eta ondoren Los Angeles ikastetxean, fraideekin. 15 urterekin Zurich aseguru etxean hasi zen lanean. Afrikan egon zen soldadu. Errenteriako emakume batekin ezkondu zen, eta lau seme-alaba izan zituzten. Euskara galdu samar eduki ondoren, berreskuratu egin zuen. Santo Tomas lizeoaren bultzatzaileetako bat da.

Zintak

DON-117

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-05-10
- **Iraupena:** 117 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Polloe kanposantu inguruan desagertutako baserriak

- **Erref:** DON-117/003
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:01:42. **Bukatu:** 00:05:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Polloe kanposantu ingurua asko aldatu da. Donostian baserri asko desagertu dira. Beraiena, Etxetxo baserria, justu-justuan libratu zen. Lorentzioene, Mozkotegi... Ingurua asko aldatu da. Polloeko kanposantua ere handitu egin zuten. Desagertutako baserrien izenak esaten ditu.

2. Etxetxora igandetan, laguntzera

- **Erref:** DON-117/004
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:05:25. **Bukatu:** 00:06:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Igandero aita, bera eta anaia Etxetxora joaten ziren, baserriko lanekin laguntzera. Etxetxon toleara zegoen. Ama zen hangoa. Aitona-amonak han bizi ziren.</p>

Transkripzioa

- Gu, ba, jaiero, igandero, aita ta bi anai gea gu, ba, jaiero ta igandero iyotzen giñan Etxetxoa. Etxetxoa. Aita laguntzea, amonak hala eskatzen ziolako, laguntzea. Normala dan bezela, hango semiak batez ere, ba, igandia zala-ta, ba, bueno, aldegin iten zuten. Oseake... Eta baserriyan, ba, lan asko zeon, dirudienez, eta, bueno, beti lagundu in bihar zan. Eta aita, bi seme-alabakin, baiño gu oso mutil koxkorak giñen, ba, iyo iten zan. Iyo iten zan. Eta, bueno, bazakan tolaría ta bere terrenuak bazitun, eta, bueno, nahiko, nahiko... ta ordun, ba, lan pillá.

- Eta hangua zan zure...?

- Ama. Ama, bai, bai, bai.

- Eta amona-ta han bizi ziran?

- Bai, aitona ata amona han bizi zian.

3. Etxetxokoak tratuarekin plazara

- **Erref:** DON-117/006
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:07:14. **Bukatu:** 00:08:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

<p>Amona bertakoa zen, donostiarra, baina aitona ez daki seguru. Amona sinpatika zen. Bera eta ahizpak egunero San Martingo azokara joaten ziren Etxetxotik. Oinez, 'txisterekin'.</p>

Transkripzioa

- Amona hemengua zan, hemengua. Aitona ez dakit esaktamente nik nungua zan. Aitona ez dakit. Ez dakit usurbildarra zan o ez dakit, esaktamente ez naiz... ez dakit. Baiño amona hemengua zan, Donostitik ospitale aldera hor zeon, o daon, zeon baserri batekua. Eta ordun, bueno, oroimena oso... oso emakume atsegiña zan, oso sinpatika, oso atsegiña. Ta bai bera ta bai bere ahizpak eta beakin alaba batzuk eta, egunero etortzen zian San Martingo azoka, San Martingo plaza. Tratuakin jeisten zian Etxetxotik honuntza, honea. Eta ekartzen zituzten txisterak-eta buru gaiñean. Buru gaiñean ekartzen zituzten txisterak.

- Oiñez jeisten ziran?

- Bai, oiñez jeisten zian, bai. Oiñez, oiñez. Bai, bai. Ni... amak esaten zun txikiya gelditu zala horrengatik, txisterengatik, pisuengatik.

4. Etxetxokoak tratuarekin plazara II

- **Erref:** DON-117/008
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:09:09. **Bukatu:** 00:10:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Amonari amak laguntzen zion tratuarekin. Oso gogorra zen. Esnea ere partitzen zuten. Zaldi-karroa erosi zuten gero. Amonak postua zuen San Martin plazan.</p>

Transkripzioa

- Alabak-eta, ba, jeitsi bihar zituzten, o marmitak ziala o txisterak ziala, o beti zeozer, ez? Beti zeozer. Eta hoi, dirudienez, dirudienez, ba, neska gazteentzat drama bat zan. Drama bat, ze, dirudienez, askotan marruez bukatzen zuten hainbeste pisukin eta hainbeste... ta, bueno, lan asko, lan asko.

- Esnia ere partitzen zuten?

- Baita, baita, baita. Gu... Nik geo ezautu ditut karruakin. Karruakin. Zaldiya ta karrua ta. Ta bai, ekartzen zuten esnia etxea ta... Bai, esnia partitzen zuten. Ez dakit zenbat eta nora ta. Ez dakit. Hainbeste ez dakit, baiño tratua jeisten ziala ta amonak tratua hor San Martingo sarreran erdi-erdin zekala bere... Bueno, ezin da esan haiek puestuak ez dakit zian, baiño zian bankuak o antzeko zeozer. Eta hor bi o hiru ahizpa hor ibiltzen zian, ta hor egoten zian hiru ahizpa o, tratuan egunero.

5. Familiaren jatorria

- **Erref:** DON-117/009
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:10:44. **Bukatu:** 00:13:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ama Etxetxo baserrikoa eta aita Parte Zaharrekoa; amona (aitaren ama) Ubakoa zen. Abuztuaren 31n bizi ziren. Ubako hiru ahizpa bizi ziren Parte Zaharrean.

6. Aita arrantzan eta igeltsero lanetan

- **Erref:** DON-117/011
- **Iraupena:** 0:04:26. **Hasi:** 00:13:48. **Bukatu:** 00:18:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak

Laburpena:

Aita arrantzan ibili zen lehenengo; haren aita suhiltzailea gazterik hil zen. Hiru mutil eta neska bat ziren. Mutilak lehengusu igeltseroarekin ibili ziren lanean: Sarriegi. Tailer horretan hasi zen aita ere, arrantza utzita. Gerra hasi zenean, anaia zaharrena Gernikan hil zen, eta gero aita jarri zuten enkargatu moduan. Osaba nola hil zen kontatzen du, Gernikako bonbardaketan.

7. Amona eta izeba Bilbo aldera ihesi

- **Erref:** DON-117/013
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:18:32. **Bukatu:** 00:20:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Bere familiakoak ihesi joan ziren Bilbo aldera, Donostiatik. Amona Carmen eta izeba Florenekin batera arrantzako bapore batean joatekoa zen aita. Ama joan zen kaira, eta aita geldiarazi egin zuen.

8. Gerra garaian, familiaren gorabeherak

- **Erref:** DON-117/015
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:20:48. **Bukatu:** 00:22:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Aita ez zen soldaduskara joan, ama alarguna zuelako, baina gero joan beharra izan zuen; Lizarran egon zen soldadu. Anaia bat gerran galdu zuen. Amonak eta izebak gosea pasatu zuten Bilbo aldean.

9. Aitona suhiltzailea

- **Erref:** DON-117/017
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:22:28. **Bukatu:** 00:23:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak

Laburpena:

Aita itsasoan hasi zen, eta gero igeltsero ibili zen anaiekin, lehengusuen tailerrean. Aitona suhiltzaileen korneta zen; nahiko gazte hil zen.

10. Bretxako mugimendua

- **Erref:** DON-117/020
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:24:23. **Bukatu:** 00:28:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Arrandegia zegoen Bretxan, eta mugimendu handia zegoen. Pasaiko baporetako arraina ekartzen zuten. Kamioietan Bartzelonara eramaten zuten arraina gero. Goian postuak zeuden, arraina saltzeko. Pareko eraikinean postuak zeuden, eta baserritarrak. Bretxaz gainera, San Martin azoka ere bazegoen.

11. Rekalde taberna dagoen tokian denda zegoen

- **Erref:** DON-117/022
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:28:36. **Bukatu:** 00:31:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Rekalde taberna dagoen tokian bizi ziren, Aldamarko 1 zenbakian. Denda bat zegoen han lehen, Jose Grosena (Pepito Gros). Gros auzoak bere aitaren izena darama: Tomas Gros.

12. Aldamar kaleko dendak

- **Erref:** DON-117/023
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:31:08. **Bukatu:** 00:33:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Altzari denda dotore bat zegoen Aldamar kalean. General Jauregin egiten zituzten, tailerrean. Janari dendak ere bazeuden. General Etxague ezkinan Josetxoren gurasoen denda zegoen.

13. Casa Nicolasa jatetxea

- **Erref:** DON-117/025
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:33:17. **Bukatu:** 00:34:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Aldamarren Casa Nicolasa ostatua zegoen, oso famatua; orain ere irekita dago, baina ez da jatorrizkoa.

14. Miramar zinema aretoa eta Principe antzokia

- **Erref:** DON-117/026
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:34:30. **Bukatu:** 00:36:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Zine aretoak bazeuden Aldamar kalean. Miramar zineak eta Principe antzokia. "Rebistak" eta antzezlanak. Gurasoek ez zuten joateko ohiturarik. Beraiek noizbehinka joaten ziren, baina gutxi.

15. Ensanchen eta Los Angelesen ikasten

- **Erref:** DON-117/028
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:36:55. **Bukatu:** 00:40:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Eskolan Ensanche Orientalean hasi zen, publikoan, eta gero faride eskolara joan zen, Los Angelesera. Ikastetxe hori garrantzitsua zen sasoian, fama zeukan. Bankuetako eta bulegoetako langile gehienak handik ateratzen ziren. 15 urte arte ibili zen, lanean hasi arte. Dena erdaraz ikasi zuen.

16. Euskaldunak lotsarazi egiten zituzten, ikastetxean

- **Erref:** DON-117/030
- **Iraupena:** 0:04:49. **Hasi:** 00:41:04. **Bukatu:** 00:45:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Umetan ez zekien erdaraz. Los Angeles ikastetxean fraide batzuk gaiztoak ziren. Jo egiten zuten, eta jendea gaizki tratatzen zuten. Ikastetxe ona zen bestela. Azpeitiko fraide euskaldun bat ere bazen. Euskaldunak lotsarazi egiten zituzten.

17. La Salleko ikastetxeak

- **Erref:** DON-117/031
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:45:53. **Bukatu:** 00:48:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Los Angeles ikastetxean ez zuten uniformerik. Kultura orokorra ikasi zuten. Batxilerra ikastea ez zen ohikoena. Batzuetan Loiolara joaten ziren paseatzen, oraingo La Salleko ikastetxera; orduan finka zen. Orduantxe ireki zuten.

18. Mutikotan futbolean eta pilotan

- **Erref:** DON-117/032
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:48:28. **Bukatu:** 00:50:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Bodega bat zegoen Los Angeles ikastetxean, eta han jolasten zuten. Futbolera, pilotara... Pilotak beraiek egiten zituzten, artilearekin. San Bizente elizako hormetan jolasten zuten pilotan.

19. Neskak eta mutilak aparte

- **Erref:** DON-117/034
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:51:00. **Bukatu:** 00:52:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Gaztelura joaten ziren umetan, lagunekin. Neskak eta mutilak aparte ibiltzen ziren. Jolasak ere diferenteak zituzten. Kontakturik ez zuten neskekin.

20. Hondartzan, futbol txapelketak

- **Erref:** DON-117/036
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:52:55. **Bukatu:** 00:54:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Hondartzan futbolean jokatzen zuten; obsesioa zuten futbolarekin. Santa Mariako apaizari eskatzen zizkioten txapelketan parte hartzeko kamisetak. Infantilak, Kadeteak, Junior eta Senior. 4-5 urtean ibili ziren jokatzen.

21. Kaian igerian

- **Erref:** DON-117/038
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:55:06. **Bukatu:** 00:57:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:

Kaian bainatzeko ohitura handia zegoen. Igeriketa ikastaroa ere izaten zen kaian. "Perra al agua" egiten zuten batzuek, diru eske.

22. Kaian eta hondartzan bainatzen

- **Erref:** DON-117/041
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:58:31. **Bukatu:** 01:00:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Kaian ibiltzen ziren. Neskak ere bainatzen ziren, baina gutxiago; gonarekin. Hondartzan kabinak zeuden. Toldoak beti ezagutu ditu.

23. Aseguru etxean lanean; Afrikara soldadu

- **Erref:** DON-117/043
- **Iraupena:** 0:04:19. **Hasi:** 01:00:59. **Bukatu:** 01:05:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Lanbideak

Laburpena:

Aseguru etxe batean hasi zen lanean, 15 urterekin. Zurichen Hispania

konpainian. Eibarrera joan zen lanera. San Sebastian bezperan soldadu joateko zozketa egin zuten, eta Afrikara joatea egokitu zitzaion. Bueltan, aseguru etxean jarraitu zuen.

24. Afrikarako bidaia

- **Erref:** DON-117/044
- **Iraupena:** 0:06:03. **Hasi:** 01:05:18. **Bukatu:** 01:11:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Afrikarako bidaia kontatzen du. Maleta pisutsua jarri zioten etxean. Trenez joan ziren Madrilera, gero handik Cadizera, eta egurrezko bapore batean Fuerteventurara. Ifniko kostaldera eraman zituzten, hondartza batera.

25. Idazkari lanetan, Sidi Ifnin

- **Erref:** DON-117/045
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 01:11:21. **Bukatu:** 01:14:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Fuerzas de Policia del Africa Occidental. Polizia koloniala zen. Gerra deklaratu zen. Aireko legionarioek erakutsi zieten instrukzioa. Makinan idazten zekienez, horretantxe jarri zuten.

26. Aldaketa teknologikoak

- **Erref:** DON-117/049
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 01:20:13. **Bukatu:** 01:21:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Beste aurrerapen batzuk
- Lanbideak

Laburpena:

Idazteko makinaren promoziokoa da bera, baina aldaketa teknologiko handiak izan dira. Lehen eskuz egiten zituzten gauza asko, eta plantilak asko murriztu dira.

27. Etxea aseguratzeari ez zen hain ohikoa

- **Erref:** DON-117/051
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 01:22:38. **Bukatu:** 01:24:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Lanbideak

Laburpena:

Etxea aseguratzea derrigorrezkoa da hipoteka eginez gero. Lehen, etxeko aseguruak ez ziren hainbeste; jendea konbentzitu egin behar zen. Etxe asko egin dituzte. Donostia asko aldatu da.

28. Aita arraunlari ibilia

- **Erref:** DON-117/055
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 01:27:03. **Bukatu:** 01:29:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:

Aita arraunlaria zen. Arraunlari asko arrantzaleak ziren. Gerrak aldaketak ekarri zituen. Ezkondu zenean, aitak arrauna utzi zuen, Etxetxoko amonarengatik.

29. Dantzara Erreteriarra eta Hernanira

- **Erref:** DON-117/064
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 01:40:51. **Bukatu:** 01:44:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Dantzara neguan Erreteriarra joaten ziren eta udan Hernanira, kuadrillan. Erreteriaran ezagutu zuen emaztea izango zuena. Trenean joaten ziren Hernanira. Erreteriarra tranbian ere bai. Ez zen dantzari trebea. Tragoxka hartu eta gero joaten ziren.</p>

30. Musean jokatzeko, Parte Zaharrean

- **Erref:** DON-117/067
- **Iraupena:** 0:03:46. **Hasi:** 01:45:30. **Bukatu:** 01:49:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

<p>Goiz hasi ziren kalera ateratzen. Musean ibiltzen ziren asko, Alde Zaharrean. El Caserio tabernan ibiltzen ziren; itxi egin zuten, eta Aldanondo jatetxea jarri zuten. Aralar tabernara joaten hasi ziren gero; nafarrak ziren. Bere kuadrillan ez ziren txikiteoan ibiltzen.</p>

31. Euskarari buruzko iritzia

- **Erref:** DON-117/072
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 01:54:00. **Bukatu:** 01:56:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Goierriko euskara aberatsagoa iruditzen zaio. Arrasate eta Eibar aldekoek euskara dotorea dutela dio. Euskara batua sortzeko euskara ahulena hartu ote zuten; Koldo Mitxelena. Donostia inguruko euskara antzekoa ei da.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-06-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com